



HERRIGUNEA: ERDIGUNEA

- 1 Labaderokua gunearen urbanizazioa hobetzea.
- 2 Untzagan, trafikoaren norantza aldatzea oinezkoentzat izaten den egunetan (taxi-geltokia Untzagatik Isasira eramatea, ibilgailuak San Andres Pasealekutik Kontent-era joan ahal daitezen eta gero Egogainetik, Untzagan semaforo bat jarrita, Ipuruara igo litezke.
- 3 Mekolarako irisgarritasuna hobetzea.
- 4 Trena pasatzean ateratzen duen zarataren arazoa konpontzea; soluzioetako bat izan daiteke Ardantzako geltokiko gunea ixtea.
- 5 San Andres pasealekura ematen duten trenbide-zatia ixtea, trenak egiten duen zarata gutxitzeko.
- 6 Isasi 35 zenbakiko arkupea txukuntzea, La Salle Isasi Ikastetxe parean, paperontzi bat jarritz, argiztapena hobetuz eta arkupeko sabaia pintatuz.
- 7 Kultu pareko parkean dauden jolasak Bizikleta Plazara eramatea (zabalagoa da, irisgarriagoa).
- 8 Txaltxa Zelai 2 behean dauden hezetasun-arazoak konpontzea (idatzia aurkezten du).
- 9 Juan Gisasolako patioetako atzealdeko belarrak kentzea eta asfaltua jarri/jardiñ bihurtu/gehiagotan garbitzea.
- 10 Txaltxa Zelaiko parkea zabaltzea, landaresi berdea kenduta.
- 11 Eibar hiri eredu europarrera egokitzea; horretarako Txaltxai Zelai kalean 2/3 futbol-zelai txiki egitea proposatze du (hala, umeak Untzagan jolastea saihestuko da); Txaltxa Zelai benetako lorategi bihurtzea jendea bertan etzan ahal izateko; eta kiosko bat egitea Egogainen liburu erabiliak trukatzeko (nahi bada euro batean, eta etekina, adibidez, Eibar Sahararentzat).
- 12 Txaltxa Zelai eta Urki beheko asfaltatua hobetzea, biribilgunearen inguruan (partxeatuta dago eta zuloak ditu).



- 13 Txaltxa Zelaiko miradore edo begiratokia argiztatzea, segurtasun-sentsazioa areagotzeko.
- 14 Haize-makina elektriko gehiago erostea auzotar guztiek atsedeen hartu ahal izateko, bizi diren tokian bizi direla.